



REPLAY ZERBITZUA

Erabiltzailearen eskuliburua
REPLAY zerbitzua





Aurkibidea

1. Deskribapena	3
2. Funtzionamendua	3
3. Urrutiko agintearen erabilera	5
4. Berrabiaraz eta geldi daitezkeen programak	6



1. Deskribapena

Honetarako aukera ematen dizu Euskaltelen TBko Start-Over eta Time-Shift zerbitzuak:


- Erabiltzen ari zaren programa bat berrabiarazteko
- Ikusten ari zaren programa gelditu eta atzera eragiteko

2. Funtzionamendua

Oso funtzionamendu erraza du.

Bi modu daude programa bat berrabiarazteko:

- **Ikusten ari zaren programa berrabiaraztea**, hasieratik ikusteko, urrutiko agintearen REPLAY tekla sakatuta



- **"Programazio-gida"** (GIDA) erabiliz berrabiaraztea programa bat, edo **"7 egun"** aukeraren bidez: Horrelakoetan, hau egin behar duzu:

❖ Ikuskizun bat azpimarratu eta OK tekla sakatu: Orduan, beste zenbait aukeraren artean (Kanala sintonizatu, Grabatu, Itzuli...) , "Hasieratik ikusi" ere azalduko zaizu. Horixe hautatu behar duzu eta, ondoren, OK sakatu.




Programan hara eta hona mugitzeko, aurrera zein atzera azkar egiteko agintearen teklak sakatu behar dituzu



2. Funtzionamendua

Programa bat berriro hasieratik ikusten ari bazara, noiznahi itzul zaitezke zuzeneko programaziora, aukera hauez baliatuta:

- ❖ Agintearen LIVE! tekla sakatuta
- ❖ Agintearen SALIR! tekla sakatuta
- ❖ Agintearen ATRÁS! tekla sakatuta



Ikusten ari zaren programa gelditzeko, berriz, sakatu zure urrutiko agintearen PAUSA. Irudia gelditu egiten dela ikusiko duzu, eta pausa-ikurra agertzen dela pantailaren goiko eskuineko ertzean.



Programa gelditzean, ordubete (gehienez ere) egin dezakezu atzera programazioan, eta azkar aurrera eta atzera egiteko agintearen teklak sakatuta mugitu hara eta hona programan. Hemen ageri diren abiaduretan mugi zaitezke aurrera eta atzera (telebistaren eskuineko goiko ertzean ikusiko dituzu abiadurak).




3. Urrutiko agintearen erabilera

Eskema honetan dituzue zerbitzu hau erabiltzeko behar dituzuen teklak, urrutiko agintearenak alegia:


Tekla hau sakatuta hedatzen da minigida, programa berrabiaraz edo gelditu daitekeen jakiteko



Grabatutako edukiak gelditu, berriro abiarazi eta aurrera zein atzera mugiaraz ditzakezu tekla horiek sakatuta.



*Eduki bat berriro hasieratik ikusteko, sakatu **REPLAY**. (kanalak aukera hori eskaintzen badu, betiere)*



*"GIDAn" edo "7 EGUN" aukeran, programa bati atxikitako aukerak hedatzeko erabiltzen da **OK** tekla. Programa bat hasieratik berriro ikus daitekeen jakiteko aukera ematen dizu.*



*Zuzeneko programaziora itzultzeko, sakatu **LIVE!***

4. Berrabiarazi eta gelditu daitezkeen programak

Ez dira berrabiarazten edo gelditzen ematen diren programa guztiak. Programa bat berrabiaraz edo gelditu daitezkeen jakiteko, begiratu, informazio-botoia sakatzean, minigidako ikonoak edukiaren informazioan.

Eduki bat berrabiaraz edo gelditu daitezkeen jakiteko, agintearen informazio-botoi hau sakatu behar da.



Edukia berrabiaraz daitezkeela adierazten duen ikonoa



Edukia gelditu daitezkeela adierazten duen ikonoa

